**LEIOAKO PLAZER BISUAL ETA GASTRONOMIKOEN AZOKAREN ARAUAK**
REGLAMENTO DE LA FERIA DE PLACERES VISUALES Y GASTRONÓMICOS DE LEIOA
**2014**

### *Egunak*
**2014ko urriaren 3, 4 eta 5ean** egingo da azoka.

### *Lekua*
Bulebarrean egongo da.

### *Ordutegia*
Honakoa izango da azokaren ordutegia:
- Ostiralean, 17:00etatik 21:00etara
- Larunbatean, 10:30etik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara.

Igandean, 10:30etik 15:00era

### *Stand kopurua eta ezaugarriak*
Azokak, gehienez, 40 erakustoki izango ditu eta artisau teknika desberdinak ekartzen saiatuko da.

Standak etxola independenteak dira (erantsita doaz argazkia eta planoa).

### *Eskaerak bidaltzeko epea*
Ekainaren 16tik uztailaren 7ra.

### *Hautaketa ebaztea eta standa ordaintzea*
Behin eskabideak jasotzeko epea amaituta, dokumentazioa jaso dela telefonoz edo posta elektronikoz konfirmatuko da.

Balorazioa eta hautaketa amaituta, uztailaren 15a baino lehen, telefonoz edo posta elektronikoz jakinaraziko zaie erabakia hautatuei eta hautatuak izan ez direnei. Behar izanez gero, itxaron zerrenda egingo da.

Erakusketariek ez dute standa zuzenean ordainduko. Artisauek euren tailer eta teknikako materiala emango dute, 50 euroko balioduna. Pieza eta produktu horiek, ondoren, azoka egin

### *Fechas*
La Feria se desarrollará durante los **días 3, 4 y 5 de octubre de 2014**

### *Lugar*
Estará ubicada en el Boulevard.

### *Horario*
La Feria permanecerá abierta en el siguiente horario:
- Viernes, de 17:00 a 21:00 horas.
- Sábado, de 10:30 a 14:30 y de 17:00 a 21:00 horas.
- Domingo, de 10:30 a 15:00 horas.

### *Número y características de los stands*
La Feria albergará un máximo de 40 expositores y se procurará la presencia de la mayor variedad de técnicas artesanas.
Los stands son casetas independientes (se adjunta fotografía y plano).

### *Plazo de presentación de solicitudes*
Del 16 de junio al 7 de julio.

### *Resolución de la selección y pago del stand*
Una vez finalizado el plazo de admisión de solicitudes, se confirmará telefónicamente o mediante correo electrónico la correcta recepción de la documentación.

Finalizada la valoración y selección de las mismas, que se producirá antes del 15 de julio, se comunicará la resolución por correo electrónico o teléfono, tanto a los admitidos como los no admitidos, y se elaborará una lista de espera si fuera necesario.

No existirá abono directo por parte de los expositores por el stand, sino que cada artesano/a aportará material de su taller y técnica por un valor de 50 €; la(s)

bitartean produktuak eskuratuko dituzten erosleen artean zozketatuko dira.

pieza(s)/producto(s) formarán parte del material artesanal que se sorteará entre todos/as aquellos/as compradores/as que adquieran productos durante el desarrollo de la feria.

### *Standak muntatu eta desmuntatzea*

Erakusketariek urriaren 3ko (ostirala) 11:00etatik aurrera hasi ahal izango dituzte standak muntatzeko lanak, eta egun bereko 17:00etarako amaitu beharko dituzte.
Azoka amaitu ostean, igandean, 15:00etatik aurrera hasiko dira standak desmuntatzeko lanak, eta egun bereko 22:00etara arte egin ahal izango dira. Ordu horretatik aurrera, antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik hartuko partaideen standetako material eta objektuek narriadura edo kalterik izanez gero.

### *Montaje y desmontaje de los Stands*

Las operaciones de montaje del stand por parte de los expositores se podrán iniciar a partir de las 11:00 horas del día 3 de octubre (viernes) y deberá estar finalizada para las 17 horas del mismo día.
Finalizada la Feria, el domingo, a partir de las 15:00 horas, comenzará el desmontaje del stand, pudiendo realizarse hasta las 22 horas del mismo día. A partir de esa hora, la organización queda eximida de cualquier responsabilidad por el deterioro o daño que se produzca en el material y objetos de los stands de los/as participantes.

### *Inaugurazioa*

Urriaren 3an izango da, ostirala, 18:00etan, autoritateen eskutik. Beraz, muntaia 17:00 baino lehen amaitu beharko da

### *Inauguración*

Tendrá lugar el viernes día 3 de octubre, a las 18:00 horas a cargo de las autoridades, por lo que el montaje deberá finalizar antes de las 17:00 horas.

### *Erakusketarien eskubideak eta zerbitzuak*

- Azokaren katalogo ofizialean azaltzea. Salbuespena izango da erreserba moduan parte hartu denean, eta aldaketa egiteko astirik ez egotea.
- Standean tailerraren izena eta artisautza-teknika errotulatzea.
- Standean bere produktuak erakutsi eta saltzea.
- Azokako argi-zerbitzu orokorra.
- Instalazioak mantentzeko zerbitzua.
- Azokako megafonia.
- Promozio poltsak. (Erosketekin entregatzea derrigorrezkoa da)
- Zaintza-zerbitzua (disuasiokoa) azoka herritarrentzat itxita dagoenean.

### *Derechos y servicios de los expositores*

- Aparecer en el catalogo oficial de la Feria, excepto cuando se participe como reserva y no hubiera tiempo de realizar esta modificación.
- Rotulación del Stand con el nombre de taller y la técnica artesana.
- La exposición y venta de sus propios productos en el stand.
- Servicio de iluminación general de la Feria.
- Servicio de mantenimiento de las instalaciones.
- Megafonía de la Feria.
- Bolsas promocionales.(Su entrega con las compras es obligatoria)
- Vigilancia (de carácter disuasorio) durante los períodos en los que la feria está cerrada al público.

## *Erakusketarien betebeharrak*

Erakusketariek honako konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Eurek egindako produktuak saldu edota erakustea. Produktu horiek aurkeztu zen partaidetza-eskabidean zerrendatutakoak eta antolatzaileek onartu zituztenak izan beharko dute.
- Tailerraren titularrak —edo, hala badagokio, berak izendatutako pertsonak— standean egon beharko du ezarritako ordutegian.
- Azoka egin bitartean standean erakusgai egongo diren produktuen erantzukizuna hartzea (bermeak, funtzionamendua, etab.).
- Azokaren behar bezalako garapena aldatu edo eragotziko duen ekintzarik ez egitea.
- Eskabidean azaldu eta egiaztatutako produktuak (askotarikoak eta nahikoak) egongo direla bermatzea, saltzearen ondorioz standa hutsik gera ez dadin.
- Standa eta azokako gainerako altzariak behar bezala mantendu eta zaintzeko ardura hartzea.
- Antolatzaileek, oinarriak betez, helaraziko dituzten aginduak betetzea.
- Eragiten dieten legeak eta sektore-araudiak betetzea, eta batez ere higiene eta osasunari eta segurtasunari buruzkoak.

## *Obligaciones de los expositores*

Los/as expositores/as se comprometen a:

- La venta y/o exposición de productos elaborados por ellos/as mismos/as, relacionados en la solicitud de participación presentada y que hayan sido admitidos por la organización.
- El/la titular de taller -o en su caso la persona designada por el/ella-, deberá permanecer en el stand durante el horario establecido.
- Responsabilizarse de los productos (garantías, funcionamiento, etc…) expuestos en su stand durante la celebración de la feria.
- No realizar acciones que alteren o impidan el desarrollo ordinario de la Feria.
- Garantizar la presencia variada y un numero suficiente de productos, representativos y acreditados en la instancia de solicitud, al objeto de evitar que quede vacío por la venta de los mismos.
- Responsabilizarse del mantenimiento y buena conservación del stand y demás mobiliario de la feria.
- Atender los requerimientos que, en cumplimiento de las bases, le hagan llegar los organizadores.
- Cumplir la Ley y las normativas sectoriales que le afecten, en especial las higiénico-sanitarias y de seguridad.

## *Eskudantziak*

Dituzten eskumenak erabilita, antolatzaileek azoka behar bezala garatzeko egokitzat jotzen dituzten neurriak hartu ahal izango dituzte, parte hartzeko eskabidean zerrendatu ez ziren eta baimendu ez ziren produktuak kenduz.

Antolatzaileek eskubidea izango dute standaren eta bertan erakusgai dauden produktuen argazkiak egiteko, eta euren argitalpenetan eta sustapen ofizialetan erabili ahal izango dira argazki horiek.

## *Atribuciones*

En uso de sus competencias, la Organización podrá adoptar las medidas que considere oportunas para el correcto desarrollo de la Feria, la retirada de los productos no autorizados ni relacionados en la solicitud de participación.

La Organización se reserva el derecho de fotografiar el stand y los productos expuestos en los mismos, pudiendo utilizar estas reproducciones en sus publicaciones y promociones oficiales.


KULTUR LEIOA · Plaza Jose Ramon Aketxe, 11 48940 LEIOA (Bizkaia)
Tel.: 34 94 607 25 78 Fax: 34 94 607 25 79 e–mail: kultur@leioa.net www.kulturleioa.com

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetzeko, interesdunari jakinarazi nahi zaio emandako datuak Leioako Udalaren jabetzako fitxategi automatizatu batean sartuko direla, ARTISAUTZA AZOKA antolatu eta gauzatu ahal izateko.

Interesdunak baimena eman dio Leioako Udalari, une honetatik aurrera, bere datu pertsonalak LEIOAKO ARTISAUTZA AZOKAko gainerako parte-hartzaileei jakinarazteko, azaldutako helburuak betetzeko erabil daitezen.

Halaber, interesdunari jakinarazi zaio datuak ikusi, zuzendu, baliogabetu eta horiei aurka egiteko eskubideak erabil ditzakeela, indarrean dagoen legediak ezartzen duenaren arabera. Horretarako, idazkia aurkeztu behar du Elexalde kaleko 1. zenbakian dagoen Udaleko Erregistro Orokorrean.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de Diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se informa al/la interesado/a que los datos facilitados serán incluidos en un fichero automatizado propiedad del Ayuntamiento de Leioa con la finalidad de la orgaznización y desarollo de la FERIA DE ARTESANIA DE LEIOA.

El/la interesado/a autoriza al Ayuntamiento de Leioa a comunicar desde este mismo momento sus datos personales a los restantes asistentes a la FERIA DE ARTESANÍA DE LEIOA, para su utilización en las finalidades expuestas.

Asimismo, se informa a la persona interesada de la posibilidad de ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en los términos establecidos en la legislación vigente, mediante escrito presentado en el Registro General del Ayuntamiento, sita en C/ Elexalde, 1.


KULTUR LEIOA · Plaza Jose Ramon Aketxe, 11 48940 LEIOA (Bizkaia)
Tel.: 34 94 607 25 78 Fax: 34 94 607 25 79 e–mail: kultur@leioa.net www.kulturleioa.com